# ELTXO BATEK ZIZTATZEN BADIZU

Testua: JORDI GASTÓ

Irudiak: CHRISTIAN INARAJA

Itzulpena: XABIER OLASO




Kartoizko liburua koloretan. 17,5 x 22 cm. 22 or. 12 €.


**Eltxo batek ziztatzen badizu** (euskara)
ISBN 978-84-9172-169-7. Kartoizko orriak.

**Si te pica un mosquito** (gaztelania)
ISBN 978-84-1343-003-4. Acartonados. Prelectores.

**Se che pica un mosquito** (galegoa)
ISBN 978-84-1343-002-7. Acartonados. Prelectores.

**Si et pica un mosquit** (katalana)
ISBN 978-84-16804-87-0. Cartró. Pre-lectors.


*Eltxo batek ziztatzen badizu*
*eta ez baduzu hazka egin nahi,*
*ezagutzen dudan erremedioa,*
*baietz izan sendagai!.*

*Hiru aldiz gutxienez*
*txingoka egin jauzi,*
*altxatu galtzerdiak,*
*egin hainbat keinu itsusi...*

«Eltxo batek ziztatzen badizu» zinez dibertigarria da, eta ohiko gertakari arrunt batetik abiatuta, aurreirakurleak eta lehen irakurleak gonbidatzen ditu ziztada baten kontrako ezohiko erremedio bat probatzera. Jauzi egitea, keinuak egitea, jolastea eta adiskidetasun ederrean une ederrak pasatzea dira Jordi Gastó eta Christian Inarajaren gomendioetako batzuk.

Ez dago testu errimatu hau baino ukendu edo formula eraginkorragorik, fantasia, irudimena, adiskidetasuna eta beste pertsonekiko elkarrekintza sustatzen baititu, eta, gainera, ohikeria hausten du eta sentsazio berriak biziarazi.

Lerro eta zirkulu-formekin osaturiko trazu soilez egindako ilustrazio atsegin batzuekin osatzen da posologia. Berariaz modu inperfektu samarrean eginda dauden oinarrizko egitura hauek kolore lau eta alaiekin osatzen dira, kontakizunaren adierazkortasuna indartuz.










- **Gaia:** dibertsioa, jolasa.
- **Adin egokia:** aurreirakurleak eta lehen irakurleak.
- **Nabarmentzeko moduko aspektuak:** kartoizko liburua; testu errimatua, fantasia, adiskidetasuna, partekatzea; bizitzaren eguneroko momentuak, intsektuak; «Kandido eta besteak» (XI Album Ilustratuaren Nazioarteko Compostela Saria) eta «Oi, Eloi?» ilustratzailearena berarena.
- **Liburuaren aurrerapena:** https://issuu.com/kalandraka.com/docs/eltxo-batek-ziztatzen-badizu-eusk

## Jordi Gastó

(Bartzelona, 1976)

Artearen Historia eta Zaharberritzea ikasi ditu eta antzerkiaren, zinemaren eta poesiaren esparruetan osatu du bere formazioa. Idazlea, gidoilaria eta zuzendari eszenikoa da, Frantzian eta Espainian antzezturiko obrekin. Musika klasikoari emana bizi da profesionalki; aldi berean, literatura lantzen du, eta haur literaturari buruzko hainbat aldizkari espezializatuetan kolaboratu.

## Christian Inaraja

(Vic, 1972)

Aldizkako haur eta/edo gazte argitalpenetan marrazteaz gainera, hainbat hizkuntzatara itzulitako ehun liburutik gora ilustratu ditu. Gainera, besteak beste, karteletarako, publizitaterako, packaging-erako eta prentsarako ilustrazioak ere egin ditu. Azken aspaldion jasotako sarien artean, honakoak aipatu behar dira: Argitara emandako Liburu Onenaren Nazio-saria (2019), Album Ilustratuaren Nazioarteko Compostela Saria (2018), Junceda Saria (2013) eta Propuestas VEGAP (2013). 1998 urtetik 2018 urtera bitartean, Reusko laburmetraien zuzendarikidea izan da. Gaur egun, Sabadelleko d' Art i Disseny ILLA Escolako irakaslea da.

http://www.inaraja.com